



OLABIDE IKASTOLA

<u>OLABIDE IKASTOLA</u>
HEZKUNTZA PROIEKTUA
PROYECTO EDUCATIVO

OLABIDE IKASTOLA

HEZKUNTZA PROIEKTUA
PROYECTO EDUCATIVO

SARRERA:

Olabide ikastola gizarte-ekimeneko euskal ikastetxea da, familiek kooperatiba gisa sortua eta onura publikoko onartua.

Haur-hezkuntzatik batxilerrerainoko irakaskuntza eskaintzen die bere ikasleei, eskolaz kanpoko kultura- eta kirol-ekintzez gain, familien beharrei egokitutako zerbitzu eta azpiegituren laguntzaz.

Ikasle bakoitzari egokitutako kalitatezko irakaskuntza eleanitza bideratzen du, gaur eguneko eta bihar-etziko erronkei aurre egiteko prestakuntza egokia izan dezaten.

Gurasoekin elkarlanean dihardu neska-mutilen heziketa integrala lortzearren, gure herriaren ezagupenetik hasi (euskara eta euskal kultura, alegia) eta mundu zabalari irekita, kristau baloreak eta gizartearekiko baloreak landuz eta garatuz: humanismoa, zentzu kritikoa, elkartasuna, lankidetzeta, erantzukizuna eta ingurumenarekiko errespetua

Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza garatzen ditu eta Gasteizko eta Arabako gizartean eragile aktibo izanik euskal herrigintza bultzatzen du eta ikasle izan dituen neska-mutilentzako atseginez gogoratua izatea nahi du.

Olabide ikastola es un centro educativo vasco de iniciativa social, promovido por una cooperativa de familias y declarado de interés público.

Ofrece una enseñanza reglada así como actividades extraescolares a su alumnado desde educación infantil hasta el bachillerato, con unos servicios e instalaciones orientados a satisfacer las necesidades de sus familias.

Desarrolla con su alumnado una enseñanza personalizada, de calidad y plurilingüe, a fin de que estén adecuadamente orientados y preparados para los retos actuales y futuros.

Colabora con sus familias en la formación integral de sus hijos, desde el conocimiento de nuestra realidad más próxima – conocimiento de la lengua y la cultura vasca- y abiertos al mundo, trabajando y desarrollando los valores cristianos y sociales: el humanismo, el sentido crítico, la solidaridad, la cooperación, la responsabilidad y el respeto al medio ambiente.

Basa su acción en la mejora continua y en la innovación, siendo agente activo en Vitoria –Gasteiz y en Álava en la profundización de nuestra identidad vasca y queriendo ser un buen recuerdo para las diferentes generaciones de su alumnado.

INTRODUCCIÓN:

A. TRATAMIENTO LINGÜÍSTICO

INTRODUCCIÓN

Entendemos que el deseo de las familias que escogen Olabide Ikastola para la educación de sus hijos/as es, entre otros, el aprendizaje del y en euskera. El aprendizaje de y en el idioma vasco no es solamente la capacidad para leer o escribir en nuestra lengua sino que suponen el conocimiento de las tradiciones, cultura, costumbres y características que lo rodean, como parte esencial de la propia identidad del alumno.

A. HIZKUNTZEN TRATAERA

SARRERA

Olabide Ikastola aukeratzen duten gurasoek nahi dute, besteak beste, beren seme-alabek euskaraz ikastea. Euskaraz ikastea ez da soil-soilik gure hizkuntzaren irakurtzeko edo idazteko trebetasuna izatea; baizik hizkuntzaren inguruko tradizioa, kultura, ohiturak eta beste hainbat ezaugarri ere badakar berarekin, ikaslearen identitate ardatz nagusi bezala.

Beste alde batetik, azken urteotan psikolinguistikaren alorrean izan diren aurrerapenak direla –eta, bai eta gaur egungo gizartearen eskakizunak aintzat hartuta ere, oinarrizko helburutzat jotzen dugu eleaniztasuna; horrenbestez, honakoa proposatzen dugu:

Azken helburu izan behar dugu gure ikasleak eleanitzak izatea; jakin ditzatela zuzen eta egoki EAEko bi hizkuntza ofizialak, hau da, Europako markoan kokaturik oinarrizko hezkuntza bukatzean B2 maila lortzea izango litzateke helburua, eta Batxilergoa bukatutakoan C1 maila, eta, bestalde, Europako beste hizkuntza batean, ingelesean hain zuzen ere, zuzen eta erraz aritzeko besteko maila eduki dezatela, hau da, B1 maila derrigorrezko hezkuntza bukatzerakoan eta B2 maila batxilergoa bukatzean.

Azken helburu hau ez da gaitasunetan soilik gelditzen. Hizkuntzen erabilera bultzatu nahi dugu metodología komunikatiboaren bitartez.

A 1.- EUSKARAREN TRATAMENDUA

Orain arte izandako eskarmentuak erakutsi digu erabateko elebitasuna lortzeko ezinbestekoa dela euskarazko irakaskuntza lehenestea. Horregatik, lehenik eta behin, bi eredu ezarri ditugu:

- Ama-hizkuntza euskara dutenentzako eredia.

Por otra parte, los avances realizados durante los últimos años en el campo de la psicolingüística, así como las exigencias de la sociedad actual nos llevan a plantear el plurilingüismo como un objetivo fundamental, es por ello que proponemos:

Considerar como objetivo final conseguir alumnos plurilingües, que alcancen un uso y dominio correcto de los dos idiomas oficiales de la C.A.P.V., esto es, un nivel B2 según el marco de referencia europeo de las lenguas al terminar la enseñanza obligatoria y nivel C1 al terminar bachiller, así como un nivel que permita expresarse con una fluidez y corrección aceptables, nivel B1 al finalizar la educación secundaria obligatoria y nivel B2 al finalizar bachiller en al menos otro idioma europeo, que en Ikastola será el inglés.

Este último objetivo no hará referencia sólo al nivel de competencia lingüística. Queremos impulsar la utilización de las lenguas por medio de la metodología comunicativa.

A 1.- TRATAMIENTO DEL EUSKERA

Nuestra experiencia nos demuestra que para la consecución de un autentico bilingüismo resulta indispensable concederle prioridad al aprendizaje del (en) euskera. Por ello, por un lado, en un primer momento estableceremos dos modelos:

Un primer modelo para aquellos cuya lengua materna es el euskara.

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste edozein dutenentzat, berriz, ikaskuntza trinkoko (murgiltze programa) eredia.

- Aldi berean hizkuntza ereduak izateak duen garrantziagatik, ama hizkuntza euskara dutenak beste ikasleen eredia izatea bultzatuko dugu., beti ere hauen euskara erabilera arriskuan ipini gabe, hau da, proportzio minimo bat bermatuz, hauen erabilera kaltetua suerta ez dadin.

Ikasketetan, euskara lehenetsiko dugu Haur Hezkuntzako lehen zikloko bigarren urtetik Batxilergoa bukatu arte. Lehen Hezkuntzara iritsitakoan, irakurmena eta idazmena, bai eta zenbait Esperientzia-arlo ere, euskaraz bideratuko dira; eta 3. mailara heldutakoan, mailaka sartuko da gaztelania.

Badakigunez zein den gure errealitate soziolingüistikoa, etengabe egingo dugu proposatutako hizkuntzen – euskara ta gaztelania- trataeraren jarraipena eta ebaluazioa.

Azkenik, Ikastola honetan partaide guztien arteko o komunikazioa euskaraz izatea bultzatuko dugu.

- Un segundo modelo de aprendizaje intensivo (programa de inmersión) para aquellos cuya lengua materna sea el español u otra diferente al euskera.

Al mismo tiempo, por la importancia que tiene el tener un modelo en el aprendizaje de una lengua, potenciaremos que los alumnos cuya lengua materna sea el Euskara, sean modelos de referencia para el resto de los alumnos, siempre cuidando no poner en peligro la utilización del euskera de estos.

El euskera será lengua prioritaria de aprendizaje desde 2º año del primer ciclo de Educación Infantil hasta finalizar el Bachillerato.. Al llegar a Educación Primaria, el aprendizaje de la lecto-escritura se hará en euskera así como el de las otras Áreas de Experiencia, y a partir de 3º la introducción del castellano será progresiva.

Siendo conscientes de la realidad socio lingüística en la que vivimos, el tratamiento del euskera y castellano propuesto, estará sometido a constante proceso de seguimiento y evaluación.

Finalmente, potenciaremos el que la lengua de comunicación entre todos los miembros de ésta Ikastola sea el euskera. .

A 2.- EUROPAKO HIZKUNTZA BAT SARTZEA

Ikastolan, ingelesa lehenetsi dugu Europako hizkuntzen artean; Haur Hezkuntzako 2. zikloko 2. mailan hasi eta Batxilergoa bukatu arte eskainiko dugu ingelesezko irakaskuntza. Derrigorrezko hezkuntza bukatzean B1 maila lortuko dute gure ikasleek eta Batxilergoa bukatzean B2 maila.

B.- PERTSONA ETA BALORE EREDUAK

B 1.- PERTSONAREN ETA BALOREEN EREDUAREN EZAUGARRIAK

Prestatu nahi dugun pertsona mota lortu ahal izateko, Ikastolak, gure ustez, ondoko balore hauek bultzatu eta indartu behar ditu:

1.1) Kristau baloreak eta gizartearekiko baloreak. Hauek landuz eta garatuz: humanismoa, zentzu kritikoa, elkartasuna, lankidetzeta, erantzukizuna eta ingurumenarekiko errespetua lortzea izango da gure helburua.

A 2.- INTRODUCCIÓN DE UN IDIOMA EUROPEO

Elegida la enseñanza del(en) inglés como idioma europeo prioritario en la Ikastola, éste se impartirá desde el 2º curso del 2º ciclo Educación Infantil y hasta finalizar el Bachiller. Al finalizar la enseñanza obligatoria nuestros alumnos deberán conseguir el nivel B1 y B2 al finalizar bachiller.

B.- MODELOS DE PERSONAS Y VALORES

B 1.- CARACTERÍSTICAS DEL MODELO DE PERSONA Y VALORES

Entendemos que para conseguir este modelo de persona que queremos colaborar a formar, la Ikastola debe impulsar y potenciar los siguientes valores:

1.1) Desarrollo de los valores cristianos y sociales tales como el humanismo, el sentido crítico, la solidaridad, la cooperación, la responsabilidad y el respeto al medio ambiente.

1.2) Bizikidetzaren demokratikoa bideratzen duten oinarriko eskubide eta askatasunetikiko begirunea. Aitortzen dugu gure komunitateko guraso, irakasle eta ikasleak ideologia desberdinak dituztela, betiere tolerantzia eta begirunea gorde behar dutela, eta aniztasun horrek ez duela ekarriko bazterkeriarik edo jarrera proselitistarik. Berebiziko garrantzia emango zai bai Bakearen aldeko Hezkuntzari eta bai elkarrizketari ere, hori baita elkar ulertzeko eta tolerantzia eta begirunea lortzeko bidea.

1.3) Elkartasuna eta taldekidetzaren. Gure ustez, elkartasuna erakusten du besteekeko jarrera irekia duenak, bidegabekeriari edo bazterkeriaren aurrean kezka azaltzen duenak, bere gaitasunak jartzen dituenak gizataldearen eskura, ingurua hobetuz, Inola ere ez da onartuko ikastola honetako ikasleentzako artean jarraia baztertzailerik, aipatutako helburua lortzea eragotziko duenik.

1.2) El respeto a derechos y libertades fundamentales que favorezcan la convivencia. Reconocemos el pluralismo ideológico de familias, trabajadores y alumnado, dentro de un clima de tolerancia y respeto que no supongan discriminación ni la existencia de actitudes proselitistas. Se dará especial importancia a la Educación para la Paz y al valor del diálogo y la empatización como vía de entendimiento y consecución de un clima de tolerancia y respeto.

1.3) Solidaridad y pertenencia al grupo. Entendemos por persona solidaria aquella que es capaz de estar abierta a los demás, es sensible a las injusticias o a situaciones de marginación, que desarrolla sus capacidades al servicio de la sociedad contribuyendo a la mejora del mundo que le rodea. En ningún caso se admitirán situaciones discriminatorias dentro de la ikastola que puedan poner en peligro la consecución de este objetivo.

1.4) Gero eta globalizatuagoa dagoen mundu honetan, Euskal Herritarrak bezala, geurea dugun errealitatearen ezagutzatik (euskal hizkuntzaren eta kulturaren ezagutzatik) abiatuta, beste herri eta gizataldeekiko elkartasuna, ikuspegia zabaltzea eta egungo munduaren errealitate konplexua ezagutzea suspertuko dugu.

1.5) Lana eta esfortzua balore gisa. Gure ikasleei eman nahi diegun funtsezko baloreetako bat, lanarena eta berak gizartean bizi izateko duen ezinbestekotasunarena izango da. Horrexegatik, ikastola honek ikasleen lan-gaitasuna bultzatzen arloei emango die lehentasuna: taldean lan egiteko gaitasuna, arazoaren aurrean erantzuna emateko irudimen gaitasuna, arduraren, etengabeko jarduna, ikasteko metodoak, lana ondo egin izanaren balorea.....

1.4) Como ciudadanos de Euskal Herria, en un mundo cada vez más globalizado, desde el conocimiento de nuestra realidad más próxima (conocimiento de la Lengua y Cultura Vasca) fomentaremos la solidaridad para con otros pueblos y otras gentes, la amplitud de miras, el conocimiento de la compleja realidad que es el mundo actual.

1.5) Valor del trabajo y del esfuerzo. La capacidad de trabajo y el valor del mismo como imprescindible para el desarrollo de la vida en sociedad es uno de nuestros valores fundamentales que trataremos de infundir a nuestro alumnado. Es por ello que Ikastola potenciará todos aquellos aspectos que faciliten y desarrollen la capacidad de trabajo del alumnado: capacidad de trabajar en equipo, capacidad creativa para dar respuesta a situaciones problemáticas, responsabilidad, constancia, métodos de estudio, el valor del trabajo bien hecho, etc,

1.6) Askatasuna balore gisa. Oinarrizkoak iruditzen zaizkigu autoestimua, kritikarako gaitasuna, autokontrola, erantzukizuna eta diziplina, pertsona askearen garapenerako lagungarri izango dena.

1.7) Hezkidetzaren sexista izango ez den heziketa, bai mutilek bai neskek dituzten baloreen integrazioan oinarrituko dena, eta bultzatuko duena estereotipoen gainetik gaitasunak eta ikasle bakoitzaren ezaugarriak balioetsiko dituena, eta bi sexukideen arteko elkarbizitza bultzatuko duena.

1.8) Garapen jasangarria balio bezala. Gure mundua mugatua da, eta ditugun baliabide zenbait banatu egin beharko ditugu bai gairakideekin eta baita hurrengo belaunalditakoekin ere. Garrantzizkoa deritzogu, hori delako ingurugiroarekiko, oro har, eta bakoitzaren hurbileko inguruarekiko begirunea erakusteko bidea.

1.6) Valor de libertad, Consideramos fundamentales la autotestima, la capacidad crítica, el autocontrol, el sentido de responsabilidad y la disciplina entendida como refuerzo positivo para el desarrollo de una persona libre.

1.7) Coeducación. Conseguir una educación no sexista basada en la integración de los valores de ambos géneros y valorando por encima de estereotipos las capacidades y diferencias personales de cada alumno, potenciando la convivencia de ambos.

1.8) El desarrollo sostenible como valor. Estamos en un mundo limitado y tenemos muchos recursos escasos que compartir no sólo con nuestros contemporáneos sino también con las generaciones futuras. Además pensamos que es el modo de mostrar el respeto al medio ambiente en general y al entorno más próximo en particular

B2.-PERTSONA EREDUAREN ETA BALOREEN HELBURUAK:

2.1) Eskola-taldea osatzen dugunon artean, norberaren sinesmenekiko eta ideekiko errespetuzko eta onarpenezko giroa lortzea.

2.2) Eskola-taldea osatzen dugunon artean ikaslearen sozializazioa lortzea modu egokian.

2.3) Inor ez batzertzea ekonomia, politika, erlijio eta sexu arazoak direla eta.

2.4) Ikaslearen heziketa osoa lortzea, ikasgaiei dagokienez maila egokia erdietsita, eta hori ez ezik, ikastolak eman nahi dizkien baloreen eraikuntzan ere oinarritu beharko da heziketa hori. Baloreok ikastetxearen proiektu kurrikularrean islatzen dira.

B 2.- OBJETIVOS DEL MODELO DE PERSONA Y VALORES:

2.1) Conseguir entre todos los miembros que forman la comunidad escolar un clima de respeto y tolerancia respecto a las creencias, ideas, etc.

2.2) Conseguir entre todos los miembros de la comunidad escolar la socialización del alumno de forma adecuada.

2.3) Evitar en Ikastola la marginación o diferenciación en razón de sexo, religión, política o por razones económicas.

2.4) Conseguir una auténtica formación integral del alumno, no solo basado en la preparación disciplinar sino también en la construcción autónoma de los valores que Ikastola pretende inculcar. Estos valores se reflejan en el Proyecto Curricular de Centro.

C. METODOLOGIA ILDOA

C. 1 METODOLOGIA ILDOAREN EZAUGARRIAK

Olabide Ikastolak bultzatuko duen metodologia saiatuko da ikaslearen garapen osoa, hots, ikasleak dituen gaitasun fisiko, intelektual eta moralak, ahalik eta gehien gara daitezzen lortzen.

Hartarako, honako oinarriok izango dituen ikasketa proposatzen dugu:

1.1.) Ikasketan zehar, guraso, irakasle, beste langile eta ikasleek hartzen dute parte zuzenean, baina gurasoen zeregina aldatu egiten da ikaslearen garapen mailaren arabera. Dena dela, ikaslea gure ikastolan sartzen denetik, ezinbestekoa da ikasleari laguntzea eta haren jarraipena egitea.

1.2.) Ikaslea da bere ikasketako protagonista. Irakaslea, bitartekaria baino ez da ikaslearen eta ezagutzaren artean. Irakaslearen lana izango da, ikasleari ematea, benetako ikasketa lor dezan, behar dituen tresnak eta ikasle bakoitzak bere gaitasuna ahalik eta gehien garatzea.

C. LINEA METODOLOGÍA

C. 1 CARACTERÍSTICAS DE LA LINEA METODOLOGÍA

La línea metodológica que potencia Olabide Ikastola trata de lograr el desarrollo integral del alumno, esto es, el máximo desarrollo de sus capacidades físicas, intelectuales y morales.

Para ello planteamos un aprendizaje cuyos principios básicos son.

1.1) El aprendizaje es un proceso en el que intervienen alumnos, familia, profesores y resto de trabajadores de una forma más directa, siendo la labor de la familia diferente según la etapa de desarrollo en la que se encuentre el alumno/a. En todo caso desde que el alumno entra en nuestra Ikastola es como mínimo imprescindible una labor de apoyo y seguimiento.

1.2) El alumno es protagonista de su propio aprendizaje. La figura del profesor tenderá a que cada alumno desarrolle al máximo su capacidad dotándole de los medios necesarios para lograr un auténtico aprendizaje.

1.3) Baloreak eta jarrerak garatzeko, ezinbestekoa da:

-ikasleak argi ikus dezan guk garatu nahi ditugun balore eta jarrerak direla ikastolaren funtzionamendua eta bertako partaideen arteko harremana gidatzen dutenak.

-ikasleak uler dezan balore horien esanahia eta irismena zein den.

-ikasleak parte har dezan ikasgelaren eta ikastetxearen kudeaketan, berari dagozkion eskumenei dagokienez, behinik behin.

1.4) Ikasleak, berak dakienetik edo egiteko gai denetik "eraikitzen" du ikasketa; beraz, beharrezkoa da:

- Ikaslea bere ikasketaren protagonista izatea.

- Aldez aurretik jakin behar da ikasleak zer dakien (aurrekontzeptuak), eta ezagupen horiek lotu beharko dira landuko diren edukin berriekin (kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak).

1.3) Para el desarrollo de valores y actitudes, resulta fundamental que:

-el alumno/a perciba claramente que los valores y actitudes que pretendemos desarrollar son los que guían el funcionamiento de la ikastola y la relación entre sus miembros.

-el alumno/a comprenda el significado y alcance de dichos valores.

-el alumno/a participe de manera activa en la gestión del aula y de la ikastola, dentro de sus ambitos competenciales.

1.4) El alumno "Construye" su aprendizaje a partir de lo que ya sabe o es capaz de hacer, resulta por tanto necesario:

- Que el alumno sea el protagonista de su propio aprendizaje.

- Saber en todo momento lo que el alumno sabe (preconceptos) para partir de ello enlazar con los nuevos contenidos (Conceptos, procedimientos y actitudes) que se vayan a trabajar.

- Ikaslearen garapen etapa aintzat hartzea (adin mentala), eta, horren ondorioz, ikaskuntza-irakaskunta prozesuan planteatzen diren gaitasunak ere aintzat hartzea.

- Ematen ditugun edukinek aurrerantzean emango ditugun ezagutzak ikasteko balio izan dezatela eta oinarrizko gaitasunak lantzeko erabilgarriak izatea, hauek izango baitira hezkuntzaren azken xedea. .

- Programazioetan, bai eduki aldetik bai prozeduran eta baita jarreretan ere, ahalik eta jauzi txikienak egon daitezten, helburu komunak ahalbideratuko duen lan-taldeko koordinazio lana, (klaustroa, zikloa, saila), helburu guztiak lortu nahi diren oinarrizko gaitasunekin loturik egonik.

1.5) Ikasleak ikasten duena benetan baliagarri eta funtzionala izan dadin saiatuko gara. Hartarako, proposatzen dugu:

- Zenbait edukin derrigorrezkoak direla dakigun arren, motibagarriak izan daitezten ere saiatzea.

- Ahal izanez gero, ikasitako edukiak eta ikaslearen errealitatea konektatzen saiatzea.

- Tener en cuenta la etapa de desarrollo (edad mental) del alumno/a y las capacidades que de ello se derivan a la hora de plantearse el proceso de enseñanza aprendizaje.

- Que los contenidos que impartamos sirvan en el futuro para el aprendizaje de nuevos conocimientos, y para el desarrollo de las competencias generales, ya que estas serán el objetivo último de la educación.

- Una labor de coordinación en base al trabajo en equipo (Claustro, ciclo, departamento, etc.) con unos objetivos comunes que supere los posibles "Saltos" en las programaciones tanto a nivel de contenidos, de procedimientos, como de actitudes. estando estos contenidos ligados al logro de las competencias generales.

1.5) Trataremos en todo momento que lo que el alumno aprenda, sea realmente válido y funcional. Para ello proponemos:

- Sin olvidar la obligatoriedad de ciertos contenidos buscar la manera de que resulten motivantes.

- Intentar conectar los contenidos aprendidos con la realidad del alumno, siempre que ello fuera posible.

- Errealitatea ikuspuntu kritiko eta pertsonal batetik aztertu ahal izateko, saiatzea edukinak baliagarri izan dakizkion ikasleari.

1.6) Testuingururaturako ikasketa. Ikasketa-edukiak aukeratzekoan, ikaslearen testuingurua hartuko dugu aintzat. Gasteizen, Arabaren eta Euskal Herriaren ezagutza, euren heziketarako erabilgarri izateko moduan.

Ikasketa hau ikasgelan garatuko da, ondoko oinarrioi jarraitutako metodologia erabiliz:

a) Sozializazio oinarria: Ikasketa prozesu interaktibo gisa. Jakin badakigu irakaskuntza ikasle-ikasle zein ikasle-ikasle elkarreraginek garrantzi handia hartzen duten prozesu elkarreragilea dena, eta, horrexegatik, hain zuzen, banakako lana ez ezik, taldeko lana ere bultzatuko dugu. Behar-beharrezkoa iruditzen zaigu oinarri hau, gaur egun gero eta garrantzitsuagoa baita taldeko lana. Bestalde, talde-lanak balio behar dio ikasleari garatzen, bai besteekiko harremanetan bai eta elkertasunean ere.

- Buscar en todo momento que los contenidos le sean válidos al alumno para analizar la realidad desde una perspectiva crítica y personal.

1.6) Aprendizaje contextualizado, Tendremos en cuenta el contexto más próximo del alumno para tratar de seleccionar los contenidos del aprendizaje: Conocimiento de Vitoria-Gasteiz, Alava, y Euskal-Herria que les permita utilizar estos espacios como instrumento para su formación.

Este aprendizaje deberá desarrollarse en el aula a través de una metodología basada en los siguientes principios:

a) Principio de socialización: Aprendizaje como proceso interactivo. Somos conscientes de que la enseñanza es un proceso interactivo en el que las interacciones alumno-profesor, alumno-alumno adquieren una gran trascendencia, por lo que además del trabajo individual potenciaremos el trabajo en equipo cooperativo. Este principio lo consideramos necesario puesto que el mundo actual, es cada vez más frecuente el trabajo en equipo. Por otra parte el trabajo en grupo debe servir para el desarrollo de la sociabilidad del alumno y de la solidaridad.

b) Jarduera oinarria: Arestian, ikaslea bere ezagutzaren eraikitzailea dela aipatu dugu; prozesu hori garatuko da ikaslea heltzen denean, irakasleak proposaturiko metodologia eraginkor baten bidez, kontzeptu, prozedura eta baloreak atzematera. Guk ikasleak ezagutza berriak aurki ditzan bultzatuko badugu ere, onartzen dugu Olabide Ikastolan beste ikasketa estrategia batzuk ere izan daitezkeela.

c) Integrazio oinarria: Gelako programazioak egiterakoan, aintzat hartuko ditugu eduki mota guztiak (kontzeptualak, jarrerazkoak, prozedurazkoak), eta ahalegindukom gara arlo bakoitzean izan behar duten pisua orekatua izan dadin.

Eduki guztiek gaitasunak lortzeko helburua izan behar dute. Hau da, oinarri bezala lortu nahi ditugun helburuak hartuko ditugu kontuan, hauek lehenetsiz edukien aurrean.

b) Principio de actividad: Si anteriormente hemos citado que es cada alumno el "Constructor" de su conocimiento, este proceso se desarrollará a través de una metodología activa donde sea el alumno a través de la actividad propuesta por el profesor quien llegue a la adquisición de conceptos, procedimientos o valores. Si bien potenciaremos en todo momento que el alumno "Descubra" nuevos conocimientos (Aprendizaje por descubrimiento) entendemos que en Ikastola Olabide caben otras estrategias de aprendizaje.

c) Principio de integración: A la hora de elaborar las programaciones de aula se tendrán en cuenta todos los tipos de contenidos (conceptuales, actitudinales, procedimentales), buscando que en cada área el peso específico de cada uno resulte equilibrado.

Todos los contenidos deben responder a la consecución de las competencias básicas, es decir tomaremos como base los objetivos que queremos conseguir, primando éstos sobre los contenidos.

d) Globalizazio oinarria: Ikasgai bakoitzaren helburua justifikatuta egongo da baldin eta HPan eta ICPan islatzen diren helburu orokorrak lortzeko balio badu; beraz, ikasgai bakoitzak duen autonomia inola ere ezin da eragozpen bihurtu helburu komun horiek lortzeko.

Ikasketa eta metodologia eredu hau lortzeko dela ziurtatzeko, beharrezkoa da ebaluazioa honelakoa izatea:

- Prozesuzkoa: Ebaluazioa ikasketa prozesuaren barnean egongo da, eta prozesu hori zuzentzeko balio behar du, akatsak zehaztuz eta gelako ikaskuntza-irakaskuntza prozesua hobea dadin, akats horiek zuzenduz.

- Integrala: Ebaluazioak hezkuntza prozesuko partaide guztiena izan behar du: ikaslearena, irakaslearena, ikastolarena.

d) Principio de globalización: El objetivo de cada asignatura estará justificado en la medida en que responda a la consecución de unos objetivos globales reflejados tanto en el PEC como en el PCC, por lo que entendemos que la autonomía de cada asignatura no puede ser obstáculo a la consecución de dichos objetivos comunes.

Para asegurar la consecución de este modelo de aprendizaje y metodología es necesario que el modelo de evaluación reúna las siguientes características:

- Procesual: La evaluación estará integrada dentro del proceso de aprendizaje y servirá para corregir dicho proceso, determinando los fallos y procurando actuar sobre ellos para la consecución de un mejor proceso de enseñanza-aprendizaje en el aula.

- Integral: La evaluación debe serlo de todos los componentes del proceso educativo: alumno/a, profesor/a, ikastola.

- Etengabea: Ebaluazioa irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren beste jarduera bat besterik ez da, eta, beraz, ez du hausturarik sortu behar prozesu horretan. Gure ustez, jarraipen prozesu hau beharrezkoa da ikaslearen ikasketa prozesuan agertzen diren akatsak azkar zuzentzeko, eta behar diren aldaketak eragingo dituzten neurriak hartzeko.

- Kooperatiboa: Eraginkortasunez hartu behar dute parte protagonista guztiek: ikasleak, irakasleak.

- Gure ustez, ebaluazioa, honako etapa hauek hartuko dituen prozesua da:

* Hasierako ebaluazioa: Ikasleak hasieran zer dakien edo nondik abiatzen den jakiteko.

* Prestakuntzarako ebaluazioa. Ikasleak jakin dezan bere ikasketa prozesuan zer lortu duen edo zein akats egin duen.

* Azken gehiketa. Ikasleak ordura arte burutu duen prozesua aztertzeko egiten diren ekintzen emaitza.

- Continua: Entendemos la evaluación como una actividad más del proceso de enseñanza-aprendizaje sin que su realización suponga ninguna ruptura del mismo. A nuestro modo de ver, este proceso de continuidad es necesario para la rápida determinación de los fallos en el proceso de aprendizaje del alumnado y la elaboración de medidas tendentes a su modificación.

- Cooperativa: Deben participar en el proceso de forma activa todos los protagonistas del mismo: alumno, profesor, familia,

- Entendemos que en la evaluación debe darse un proceso que abarcaría las siguientes etapas:

* Evaluación inicial: Para conocer los conocimientos previos o el punto de partida del alumno.

* Evaluación formativa orientadora. Tendente a hacer conocer el alumno los fallos o logros en su proceso de aprendizaje.

* Sumativa final. Que será el resultado de actuaciones tendentes al análisis del proceso seguido por el alumno hasta ese momento.

* **Metaebaluazioa:** Ebaluatzeko moduaren ebaluazioa, eta horrela jakingo dugu baliagarria izan ote den jarraitutako ebaluazioa, antzemango baitugu ikaslearen garapena neurtzeko zein akats edo dohai izan dugun.

* **Metaevaluación.** Evaluación de la forma de evaluar, cuya finalidad será la de analizar la validez o no de la forma de evaluación seguida, detectando sus virtudes o posibles fallos a la hora de medir el desarrollo del alumno

C 2.- METODOLOGIA ILDOAREN HELBURUAK

a) Metodologia honen bidez lortu nahi dugu ikaslea bere gaitasun intelektual zein afektibo edo sozialak garatuz hezi dadin, forma armoniko, aktibo eta funtzional batean (kritika gaitasuna garatzeko, erabakitzeko gaitasuna, autoestimua, laguntzeko gaitasunaren garapena eta abar).

b) Ikasleari metodologia motibagarri eta kontsekuenta eskaintzea, ikaslea bera izan dadin protagonista bere ikasketan.

c) Irakaskuntza/ikaskuntza prozesua indibidualizatzea, ikaslearen benetako interesetara eta beharretara egokituz.

d) Ikaskuntza egoera hobea izan dadin, egokitu irakasle eta ikasleen jardura gelan.

C 2.- OBJETIVOS DE LA LINEA METODOLOGÍA

a) Con esta línea metodológica pretendemos que el alumno/a se forme como persona desarrollando al máximo todas sus capacidades tanto intelectuales como afectivas y sociales de una forma armónica, activa y funcional (desarrollo de la capacidad crítica, capacidad de decisión, autoestima, capacidad de colaboración, etc)

b) Dotar al alumno/a de una metodología motivante y consecuente, en la que el sea protagonista de su propio aprendizaje.

c) Individualizar el proceso de enseñanza aprendizaje adecuándolo a los intereses y necesidades reales del alumno/a.

d) Adecuar la actuación del profesor y los alumnos en el aula para que sea posible un mejor clima de aprendizaje.

e) Ikasleak izan duen prozesua kontuan hartuta, balioetsi, modu indibidualizatuagoan eta objektiboagoan, egin duen lana eta ikaslearen beraren gaitasunak.

f) Etengabe aztertzea kritikoki ikasleen eta irakasleen jarduerak.

g) Irakaskuntza-ikasketa prozesuaren eraginkortasuna handitzea, deskoordinatuta dauden irakas-jarduerak koordinatu ahal izateko. Guztion arduradunak Olabide Ikastolako ikaslea heldutasunera erabat heltzea, eta denok gara arrakastaren edo porrotaren errudun.

h) Ikasleak ikasteko dituen arazoetan aholkari eta egokien bideratzea eta irtenbideak ezartzea.

i) Gurasoei euren seme-alaben ikasketa prozesuan parte harraraztea, euren prozesuaren berri emanaz eta euren gaitasunak ere horren berri jasoz.

e) Valorar de forma individualizada y más objetiva el esfuerzo y las capacidades personales, teniendo en cuenta el proceso seguido por el alumno.

f) Someter a constante revisión crítica las actuaciones tanto de profesor como de los alumno/as.

g) Aumentar el grado de eficacia del proceso de enseñanza-aprendizaje mediante una acción conjunta que coordinada supere las actuaciones docentes descoordinadas. El proceso completo de maduración del alumno/a de Olabide Ikastola es responsabilidad de todos, y todos somos responsables del éxito o fracaso del mismo.

h) Orientar al alumno del modo más adecuado posible sobre sus problemas de aprendizaje y establecer las posibles vías de solución.

i) Hacer partícipes a las familias del proceso de aprendizaje de su hijo/a, manteniéndolos informados en todo momento y recabando la información necesaria.

D.-IKASTOLAREN EZAUGARRIAK **ETA EGITURA**

D 1.- EZAUGARRIAK:

Olabidek dituen oinarrizko ezaugarrietako bi, ikastolaren bilakaeraren haria azaltzen dutenak, honako hauek dira:

- Batetik, ikastola bat da, Euskal Eskola bat, gure Herriak duen itundutako eskola eredu propio eta berezi baten adibide, non Euskal Herriko Hizkuntza eta Kultura ezagutzeko eta erabiltzeko hezten baita ikaslea.

- Bestetik, herri ekimeneko guraso-kooperatiba bat da, eta honek gurasoek kudeatu nahi dutela adierazi nahi du, etekinik bilatu gabe, eta oinarrizko eta ukaezinezko den eskubideaz baliatuz, hots, euren seme alabentzat nahi duten heziketa erabakitzeko eta kontrolatzeko eskubideaz baliatuz.

D.- CARACTERÍSTICAS Y **ESTRUCTURA DE LA IKASTOLA**

D 1.- CARACTERÍSTICAS:

Dos de las características básicas de Olabide ikastola, que definen el hilo conductor de la evolución de nuestra Ikastola son:

- Por un lado, es una Ikastola, una Escuela Vasca, ejemplo de un modelo de centro concertado de enseñanza propio y específico de nuestro País y en el que se pretende educar al alumnado en el uso y conocimiento de la Lengua y Cultura de Euskal-Herria.

- Por otro lado, es una Cooperativa de padres de iniciativa popular, lo que indica un deseo de gestión directa de los padres, sin ánimo de lucro y en ejercicio de un derecho fundamental e irrenunciable, cual es el de decidir y controlar la clase de educación que han de recibir sus hijos.

D 2.- KOOPERATIBAREN EGITURA

Indarrean dagoen legediarekin eta elkartearen estatutuekin bat etorrira, honako hauek dira gobernu organoak:

- **Batzar Nagusia:** Olabide Ikastolak dituen bazkideen nahiaren goreneko adierazpen-organoa da.

-**Artezkaritzakontseilua:**

Kooperatibaren gobernu, kudeaketa eta ordezkotza-

organoa da, eta horietarako eskubide guztiak egiteratzen ditu, legez edo araudi honen bidez Batzar

Nagusiarentzat eta beste bazkun-sailentzat berariaz gordeta daudenak salbu.

Era berean, badira beste zenbait organo parte-hartzaile eta ikastolaren kudeaketarako:

- **Zuzendaritza Kontseilua:** Artezkaritzakontseiluaren eta beste Hezkuntza komunitateko ordezkarien (Zuzendaritza, langileria eta ikasleria) topagune. Artezkaritzaren aginduz, pedagogia eta administrazio arloak bultzatu eta kontrolatuko ditu. Ikastolaren eguneroko jardunaren jarraipena egingo du, eta Artezkaritzari aurkeztuko dizkio proposamen zehatzak, honek erabakiak hartu ahal izateko.

D 2.- ESTRUCTURA DE LA COOPERATIVA

Conforme a la legislación vigente y estatutos sociales, los órganos de gobierno son:

- **La Asamblea General:** Es el órgano supremo de expresión de la voluntad social de la Cooperativa que es Olabide Ikastola.

- **Consejo Rector:** Es el órgano de gobierno, gestión y representación de la Cooperativa, ejerciendo todas las facultades al respecto, salvo aquellas que estuvieran expresamente reservadas por la Ley o los Estatutos a la Asamblea General y otros órganos sociales.

Así mismo, existen distintos órganos de participación y para la gestión de la ikastola:

- **El Consejo de Dirección:** Órgano de encuentro del Consejo Rector y el resto de miembros de la comunidad educativa (dirección, personal y alumnado) y , por delegación del Consejo Rector impulsa y controla las áreas pedagógica y administrativa. Ejercerá las funciones de seguimiento de la marcha diaria de la Ikastola, elevando al Consejo Rector las propuestas pertinentes para la toma de decisiones.

- **Zuzendaritza taldea**

Honakoek osatzen dute zuzendaritza taldea: zuzendaritza nagusia, pedagogia zuzendaritza, etapako zuzendaritzak, orientazio saileko zuzendaritza eta administrazio zuzendaritza. Zuzendaritza taldearen zeregina da Ikastolaren eguneroko jardunaren jarraipena egitea, eta, beste alde batetik, Artezkaritza Kontseiluak hartutako erabakiak betearaztea. Zuzendaritza taldearen egitura momentuaren beharretara egokituko da.

- **Gurasoen Kontseilua:** Ikasgeletako ordezkariak hartzen dute parte; honakoak dira bere zereginak:

- a) Gurasoek egiten dituzte proposamen eta eskaera guztiak bideratzea Ikastolako organoetara.
- b) Parte hartzea bultzatzea eta integratzea, hori baita Ikastolak berez-berezko duen dohai bereizgarria.

- **Ikasleen kontseilua:** Ikasgeletako ordezkariak hartzen dute parte; honakoak dira bere zereginak:

Ikasleek egiten dituzte proposamen eta eskaera guztiak bideratzea Ikastolako organoetara

- **Equipo directivo:**

Está compuesto por la dirección general la dirección pedagógica, las direcciones de etapa, la dirección del departamento de Orientación y la dirección administrativa. Sus funciones son el seguimiento de las actividades diarias de la ikastola, así como impulsar los acuerdos tomados por el Consejo Rector.

La estructura del equipo directivo se adaptará a las necesidades del momento.

- **El Consejo de Padres:** Es el órgano donde participan los representantes de clases con el propósito de:

- a) Canalizar las propuestas y peticiones de las familias hacia los organos colegiados de la ikastola y viceversa.
- b) Estimular e integrar el espíritu participativo como valor añadido diferencial de la Ikastola.

- **Cámara de delegados** de alumnos: Es el órgano donde participan los representantes de clases con el propósito de:

Canalizar las propuestas y peticiones del alumnado hacia los organos colegiados de la ikastola y viceversa

- **Enpresa Batzordea:** Langileen ordezkariak sindikalari dagokion organoa da.
- **Irakasleen Klaustroa:** etapako zuzendaria da organo honen lehendakaria, eta dagokion etapako eguneroko eskola-jarduna arautzen du.

NORBAKARREKO ORGANOA

Zuzendaritza Orokorra: Kooperatibaren kudeaketa eta pedagogia kudeaketaren gorengo arduraduna da. Artezkaritza Kontseiluaren aurrean.

Zuzendaritza Pedagogikoa: Jarduera pedagogikoaren kudeaketa profesionalizatuari erantzuten dion organoa da, pertsona bakarrekoa.

Etapako Zuzendaritzak: Etapa bakoitzeko hezkuntza-jardueraren erantzule zuzenak dira. Zuzendaritza Nagusiak aukeratzen ditu, Klaustroak aurkeztutako hiru izangaien artean.

Orientazio sailaren zuzendaritza
Orientazio Saila koordinatu eta zuzendu behar du.

Administrazio Zuzendaria: Administrazio eta finantza jardueraren eta zerbitzuen arduradun zuzena da.

- **El Comité de Empresa:** Es el órgano de representación sindical de los trabajadores.

- **El Claustro de profesores:** Es el órgano colegiado que presidido por la dirección de etapa, regula la vida académica diaria de su etapa.

ORGANOS UNIPERSONALES

La Dirección General: Es el máximo responsable de la Gestión de la actividad pedagógica y gerencial de la Cooperativa ante el Consejo Rector.

La Dirección Pedagógica: Es el órgano unipersonal que atiende la gestión profesionalizada de la actividad pedagógica.

Las Direcciones de etapa: Son las responsables directas de la actividad educativa en cada etapa. Serán elegidas por la Dirección General entre una terna presentada por cada Claustro.

Director o directora del dpto. de orientación

Es el encargado de coordinar y dirigir el departamento de orientación

El Director Administrativo: Es el responsable directo de la actividad administrativa-financiera y de servicios.